



**Boloniako Prozesua, 2020 –
Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua hamarkada berrian**

**Goi-mailako hezkuntzaz arduratzen diren ministro europarren Konferentziaren
Komunikatua,**

Lovaina / Louvain-la-Neuve, 2009ko apirilaren 28a eta 29a

Gu, Boloniako Prozesuaren 46 herrialdeetan goi-mailako hezkuntzaz arduratzen garen ministrook, Lovainan/Louvain-la-Neuven (Belgika) elkartu gara 2009ko apirilaren 28an eta 29an Boloniako Prozesuaren lorpenak ebaluatzeko eta hurrengo hamarkadako Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrurako lehentasunak ezartzeko.

Hitzaurrea

1. 2020. urtean amaitzen den hamarkadan, goi-mailako hezkuntza europarrak asko lagunduko du oso sortzailea eta berritzailea izango den ezagutzaren Europa egiten. Zahartzen ari den biztanleriaren erronkaren aurrean, Europak ahalegin horretan arrakasta izango du, baldin eta ahalik eta gehien erabiltzen baditu bere herritar guztien talentua eta gaitasuna, eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan erabat inplikatzeko bada eta horrez gain, goi-mailako hezkuntzan duen partaidetza zabaltzen badu.

2. Goi-mailako hezkuntza europarrak, gainera, globalizazioaren erronka handiari eta ondoriozko aukerei egin behar die aurre, baita garapen teknologikoaren bizkortzeari ere, hornitzaile berriekin, ikasle berriekin eta ikaskuntza mota berriekin. Ikaslea eta mugikortasuna oinarritzat hartzen dituen ikaskuntzak ikasleei lagunduko die lan-merkatu aldakor batean behar dituzten kompetentziak garatzen eta herritar aktibo eta arduratsu bihurtzeko ahalmena emango die.

3. Gure gizarteek, gaur egun, finantzaren eta ekonomiaren alorreko krisialdi globalaren ondorioei egin behar diete aurre. Susperraldi eta garapen ekonomiko jasangarria lortzeko asmoz, goi-mailako hezkuntza europar dinamikoaren eta malguaren helburua hezkuntzaren eta ikerketaren arteko integrazioan oinarritutako berrikuntza izango da maila guztietan. Onartzen dugu goi-mailako hezkuntzak funtsezko zeregina bete behar duela aurre egiten diegun erronkei arrakastaz heldu behar badiegu eta gure gizarteetako garapen soziala eta kulturala sustatu behar baditugu. Beraz, guk uste dugu funtsezko lehentasuna dela goi-mailako hezkuntzan inbertsio publikoa egitea.

Guk erabateko konpromisoa hartzen dugu Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren helburuak lortzeko. Esparru horretan goi-mailako hezkuntza erantzukizun publikoa da, eta goi-mailako hezkuntzako erakunde guztiek gizartearen premia handienei erantzun behar diete beren egitekoen aniztasunaren bitartez. Helburua zera da, bermatzea goi-mailako hezkuntzako erakundeek behar diren baliabideak dituztela helburu guztiak betetzen jarraitzeko. Helburu horien artean ikasleak gizarte demokratiko batean herritar aktibo gisa prestatzea dago, baita ikasleak beren etorkizuneko lanbide-karrerarako prestatzea eta ikasleen garapen pertsonala ahalbidetzea, ezagutza-oinarri zabala eta aurreratua sortzea eta mantentzea eta ikerketa eta berrikuntza sustatzea ere



Goi-mailako hezkuntza-sistemen eta hezkuntza-politiken inguruan hasita dagoen nahitaezko aldaketak erakunde-autonomiaren, ikasketa-askatasunaren eta gizarte-ekitatearen balio europarretan irmoki errotuta jarraituko du eta ikasleen eta irakasleen erabateko partaidetza beharko du.

I. Lorpenak eta finkapena

5. Azken hamarkada honetan Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua garatu dugu eta ziurtatu dugu Europako ondarean eta anbizio intelektualetan, zientifikoetan eta kulturaletan irmoki errotuta jarraitzea. Anbizio horien ezaugarria da gobernuak, goi-mailako hezkuntza-erakundeek, ikasleek, irakasleek, enplegatzailerak eta gainerako partaideek elkarrekin etengabeko lankidetzan jarduten dutela. Europako instituzioek eta erakundeek aldaketa-prozesuari egin dioten ekarpena ere garrantzitsua izan da.

6. Boloniako Prozesuak balio du goi-mailako hezkuntza-sistemen bateragarritasuna eta konparagarritasuna handiagoak izateko, eta ikasleen mugikortasuna errazteaz gain, erakundeek beste kontinente batzuetako ikasleak eta irakasleak erakartzen laguntzen du. Goi-mailako hezkuntza modernizatzen ari da, orain hiru zikloko egitura bat baitauka. Egitura horretan, testuinguru nazionalaren barnean, lehenengo zikloari lotutako erdi-mailako titulazioa lortzeko aukera dago eta hezkuntzaren kalitaterako Arau eta Zuzentarau Europarrak (ESG) hartu dira. Era berean, ikusi dugu kalitate-agentzien Europako erregistro bat sortu dela eta Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren eremu globalari lotutako kualifikazio-eremu nazionalak ezarri direla, ikaskuntza-emaitzen eta lan-kargaren arabera. Gainera, Boloniako Prozesuak Diplomaren Gehigarria eta Kredituak Transferitzeko eta Metatzeko Sistema Europarra sustatu ditu gardentasuna eta onespena are handiagoak izateko.

7. Boloniako Adierazpenak jarritako helburuak eta ondorengo urteetan garatutako politikak baliagarriak dira gaur egun ere. Helburu guztiak erabat lortu ez direnez, helburu horiek Europan, nazioan eta erakundeetan erabat eta modu egokian aplikatzeko bultzada handiagoa beharko da eta konpromisoa hartu beharko da 2010. urtetik haratago.

II. Etorkizunerako ikastea: goi-mailako hezkuntzaren lehentasunak hurrengo hamarkadan

8. Goi-mailako hezkuntzaren alderdi guztietan bikaintasuna lortzeko asmoz, garai berriko erronkei helduko diegu; horretarako, kalitatean jarri behar dugu arreta etengabe. Are gehiago, gure hezkuntza-sistemen aniztasuna –horrenbeste balioesten dena– mantenduz, politika publikoek goi-mailako hezkuntzaren egiteko desberdinen balioa guztiz onetsi beharko dute. Egiteko horiek komunitatearen zerbitzura dagoen irakaskuntzaz eta ikerketaz gain, gizarte-kohesioan inplikatzeko eta kultura-garapena dira, besteak beste. Goi-mailako hezkuntzako erakundeetako ikasle eta irakasle guztiek prestatuta egon behar dute azkar bilakatzen ari den gizarte baten eskaera aldakorrei erantzuteko.



• *Dimentsio soziala: ikasketetarako sarbide ekitatiboa eta ikasketak amaitzea*

9. Goi-mailako hezkuntzako ikasleek Europako biztanleriaren aniztasuna islatu behar dute. Beraz, goi-mailako hezkuntzaren ezaugarri sozialak nabarmentzen ditugu eta kalitatezko hezkuntza batean aukera-berdintasuna eskaintzea dugu helburu. Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea zabaldu egin behar da ordezkari txikia duten taldeetako ikasleen ahalmena sustatuz eta ikasle horiei aukera egokiak emanez beren ikasketak amaitu ahal izateko. Horrek berekin dakar ikaskuntza-ingurunea hobetzea, ikasteko dauden oztopo guztiak desagerraraztea eta baldintza ekonomiko egokiak sortzea ikasleek ikasteko aukeretatik onura lortu ahal izateko maila guztietan. Parte hartzen duen herrialde bakoitzak helburu neurgarriak ezarriko ditu partaidetza orokorra zabaltzeko eta goi-mailako hezkuntzan ordezkari txikiagoa duten taldeen partaidetza areagotzeko. Helburu horiek hurrengo hamarkadaren amaieran lortu beharko dira. Goi-mailako hezkuntzan ekitatea lortzeko ahaleginak hezkuntza-sistemaren beste alderdi batzuetan ekintzak gauzatuz osatuko dira.

• *Etengabeko ikaskuntza*

10. Era berean, lortuko da partaidetza handiagoa izatea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren bitartez, ikaskuntza hori gure hezkuntza-sistemak osatzen dituen zati izanik. Etengabeko ikaskuntza erantzukizun publikoaren printzipioari lotuta dago. Irisgarritasuna, eskaintzaren kalitatea eta informazioaren gardentasuna bermatuko dira. Bizitza osoan zeharreko ikasketak berekin dakar kualifikazioak lortzea, ezagutzak zabaltzea eta errealitatea hobeto ulertzea, trebetasun eta konpetentzia berriak eskuratzea eta garapen pertsonala aberastea. Etengabeko ikasketak berekin dakar tituluak lortzeko aukera izatea ikaskuntza-ibilbide malguen bitartez, denbora partzialeko ikasketa barne, baita lanean oinarritutako bideen bitartez ere.

11. Etengabeko ikaskuntzako politikak aplikatzeko, lankidetzaren sendoa izan behar da administrazio publikoen, goi-mailako hezkuntzako erakundeen, ikasleen, enplegatzaileen eta langileen artean. Europako Unibertsitateen Elkarteak Etengabeko Ikaskuntzari buruz egindako Europako Unibertsitateen Gutunak laguntza baliagarria ematen du lankidetzaren mota hori zehazteko. Etengabeko ikaskuntzarako politika arrakastatsuetan oinarritutako printzipioak eta prozedurak bildu beharko dira aurretiko ikaskuntza onesteko ikaskuntza-emaitzen arabera, kontuan hartu gabe ezagutza, trebetasun eta konpetentzia horiek ikaskuntza formalen, ez-formalen edo informalen bitartez eskuratu ote ziren. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari antolamendu-egiturek eta finantzaketak lagundu beharko diote. Politika nazionalak sustatzen duten bizitza osoan zeharreko ikasketak goi-mailako hezkuntzako erakundeen praktikaren ezaugarri izan behar du.

12. Kualifikazioen eremu nazionalen garapena urrats garrantzitsua da etengabeko prestakuntza ezartzeko. Gure asmoa da autoziurtagarriaren ezartzea eta prestatzea Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren Kualifikazio Eremuaren arabera 2012an. Horrek eskatuko du Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren eta Etengabeko Ikaskuntzarako Kualifikazioen Esparru europarraren artean koordinazio jarraitua izatea.



Testuinguru nazionalaren barnean, lehenengo zikloko erdi-mailako kualifikazioak goi-mailako hezkuntzarako sarbidea zabaltzeko modu bat izan daitezke.

• *Enplegarritasuna*

13. Lan-merkatuak gero eta gaitasun-maila eta zeharkako konpetentzien maila handiagoak eskatzen dituzenez, goi-mailako hezkuntzak beharrezkoak diren trebetasunak eta konpetentziak eta ezagutza aurreratuak eman behar dizkie ikasleei beren lanbide-bizitza osoan zehar. Enplegarritasunak gizabanakoari ahalmena ematen dio lan-merkatu aldakorraren aukerez erabat baliatzeko. Hasierako kualifikazioak igotzeko asmoa dugu, baita lan-esku kualifikatua mantentzeko eta berritzeko asmoa ere administrazioen, goi-mailako hezkuntzako erakundeen, gizarte-eragileen eta ikasleen arteko lankidetzaren bitartez. Horri esker, erakundeek hobeto erantzun ahal izango diete enplegatzaileen premiei eta enplegatzaileek hobeto ulertu ahal izango dute hezkuntza-ikuspegia. Goi-mailako hezkuntzako erakundeek, administrazioekin eta enplegatzaileekin batera, ikasleei eta graduatuei eskaintzen dizkieten lanbide-orientazioko eta enplegurako zerbitzuen hornidura, iragarritasuna eta kalitatea hobetuko dituzte. Enplegua ikasketa-programetan sartzea sustatzen dugu, baita ikaskuntza lanpostuan ere.

• *Ikaslea oinarritzat daukan ikaskuntza eta Goi-mailako Hezkuntzak irakasteko duen egitekoa*

14. Nabarmentzen dugu garrantzitsua dela goi-mailako hezkuntzako erakundeek irakasteko duten egitekoa eta beharrezkoa dela curriculum-aldaketa jarraitua, ikaskuntzaren emaitzen garapenera bideratuta dagoena. Ikaslea oinarritzat daukan ikaskuntzak eskatzen du ikaslea bere banakotasunean indartzea, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren ikuspegi berriak izatea, laguntzeko eta bideratzeko egitura eraginkorrek edukitzea, eta hiru zikloetan argi eta garbi ikaslea oinarritzat duen ikasketa-plan bat edukitzea. Horregatik, curriculumaren aldaketa etengabeko prozesu bat izango da eta prozesu horren emaitza kalitate handiko hezkuntza-ibilbide malguak eta individualizatuak garatzea izango da. Irakasleek eta ikerlariek, ikasleekin eta enplegatzaileen ordezkariekin hertsiki lankidetzan arituta, ikaskuntzaren emaitzak eta nazioarteko erreferentzia-puntuak garatzen jarraituko dute gero eta gehiago diren espezialitate-arloetarako. Goi-mailako hezkuntzako erakundeei eskatzen diegu arreta berezia jar dezatela beren irakaskuntza-programen irakaskuntza-kalitatea maila guztietan hobetzeko. Horrek lehenetsi behar du Europako Arauak eta Jarraibideak etorkizunean aplikatzen direnean.

• *Hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza*

15. Goi-mailako hezkuntzak abangoardiako ikerketan eta garapenean oinarritu behar du maila guztietan, eta, ondoren, berrikuntza eta sormena sustatu behar ditu gizartearen.



Badakigu goi-mailako hezkuntzako programek –zientzia aplikatuan oinarritutako programak barne– berrikuntza sustatzeko ahala dutela. Horregatik, komenigarria izango litzateke ikerketarako konpetentziak dituzten pertsonen kopurua areagotzea. Doktorego-programek kalitate handiko diziplina-ikerketa bat eskaini beharko lukete, eta gero eta gehiago osatu beharko lirateke diziplinarteko eta sektorearteko programekin. Bestalde, goi-mailako hezkuntzako agintaritza eta erakunde publikoek ahaleginak egingo dituzte ikertzaileen lanbide-garapena hasierako fasean erakargarriagoa izateko.

• *Nazioarteko irisgarritasuna*

16. Europako goi-mailako hezkuntzako erakundeei eskatzen diegu beren jarduerak nazioartekotu ditzatela eta garapen jasangarrirako nazioarteko elkarlanean parte har dezatela. Europako goi-mailako irakaskuntzaren erakargarritasuna eta harmena sustatuko dira Europako jardun koordinatuen bitartez. Nazioarteko lehia elkarrizketa politikoa eta lankidetzaren areagotuz osatuko da munduko beste eskualde batzuekin elkartuz, bereziki Boloniako Foro Estrategikoak antolatuz, alderdi interesdun askoren partaidetzarekin.

17. Nazioarteko hezkuntza kalitatea bermatzeko Europako Arauen eta Jarraibideen bitartez arautu behar da, Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan dagokionaren arabera, eta bat etorri behar du UNESCO/ELGEren Kalitate Jarraibideekin Mugaz haraindiko Goi-mailako Hezkuntzaren arloan.

• *Mugikortasuna*

18. Guk uste dugu ikasleen, hasierako faseko ikertzaileen eta langileen mugikortasunak hobetu egiten duela programen kalitatea eta ikerketa-alorreko bikaintasuna eta Europako goi-mailako irakaskuntzaren nazioartekotze akademikoa eta kulturala indartzen duela. Mugikortasuna garrantzitsua da garapen pertsonalerako eta enplegagarritasunerako; aniztasunarekiko errespetua eta beste kultura batzuekin tratatzeko gaitasuna sustatzen du. Hizkuntza-aniztasuna bultzatzen du, Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren tradizio eleaniztuna babestuz, eta goi-mailako hezkuntzako erakundeen arteko lankidetzaren eta lehia areagotzen du. Beraz, mugikortasuna Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren berezitasuna izango da. Herrialde guztiei eskatzen diegu mugikortasuna areagotu dezatela, kalitate handikoa izango dela bermatzeko eta mugikortasun motak eta mugikortasunaren irismena dibertsifikatzeko. 2020. urtean, Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren barnean titulua lortzen dutenen artean gutxienez % 20k atzerrian eman beharko dute ikasketen edo prestakuntzaren aldi bat.

19. Hiru zikloetako bakoitzaren barnean, mugikortasunerako aukerak ikasketen-programen egituraren barnean sortuko dira. Baterako titulazioak eta programak ez ezik, mugitzeko aukerak ere ohikoak izango dira. Bestalde, mugikortasun-politikak hainbat neurri praktikotan oinarrituko dira. Neurri horiek mugikortasunaren finantzaketari, onspenari, eskuragarri dagoen azpiegiturari eta bisei eta lan-baimenei aplikatzeko zaien araudiari buruzkoak izango dira.



Ezinbesteko baldintzak dira ikasketa-ibilbide malguak eta informazio-politika aktiboak izatea, lortutako mailak guztiz onartzea, ikasten laguntzea eta dirulaguntzen eta maileguen erabateko eramangarritasuna. Mugikortasunak, halaber, ikasleek Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparru osoan egiten dituzten sarrera-irteeren fluxu orekatuago baterako bide eman beharko luke, eta espero dugu hainbat ikasle talderen partaidetza-tasa hobetzea.

20. Lan-baldintza eta lanbide-ibilbide erakargarriak izatea eta nazioarteko lan-merkatutarako sarbidea izatea ezinbesteko baldintzak dira irakasle eta ikertzaile oso kalifikatuak goi-mailako hezkuntzako erakundeetara erakartzeko. Kontuan hartuta irakasleak funtsezko elementuak direla, lanbide-egiturak egokitu egin beharko lirateke irakasleen, hasierako faseko ikertzaileen eta irakaskuntza-komunitatea osatzen duten beste batzuen mugikortasuna errazteko; esparru-baldintzak ezarriko dira gizarte-segurantzarako sarbide egokia bermatzeko eta pentsioen transferigarritasuna eta mugikortasuneko langileentzako eskubide osagarriak errazteko, dauden esparru juridikoak ahalik eta hobekien erabiliz.

• ***Datu-bilketa***

21. Datu-bilketa areagotzen bada eta hobetzen bada dimentsio sozialeko, enplegarritasuneko eta mugikortasuneko programetan ez ezik, beste arlo estrategiko batzuetan ere ezarritako helburuak lortzeko egindako aurrerapenak gainbegiratzen lagunduko da, eta, era berean, datu-bilketa oinarri gisa erabili ahal izango da inbentarioak eta ebaluazio konparatiboa egiteko.

• ***Gardentasun multidimentsionaleko tresnak***

Badakigu hainbat ekimen hasita daudela. Ekimen horiek Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparru osoan goi-mailako hezkuntzako erakundeei buruz informazio zehatzagoa emateko mekanismoak garatzera bideratuta daude, haien aniztasuna gardenagoa izan dadin. Guk uste dugu mekanismo mota hori, goi-mailako hezkuntza-sistemei eta erakundeei beren indarrak ezartzen eta konparatzen laguntzen dieten mekanismoak barne, alderdi interesdun nagusiei kontsulta eginez garatu beharko litzatekeela. Gardentasun-tresna horiek Boloniako prozesuaren printzipioekin lotuta egon beharko lukete, bereziki, kalitatearen bermearekin eta onespenearekin (hori izango da aurrerantzean ere gure lehentasuna), eta datu konparagarrietan eta adierazle egokietan oinarritu behar du goi-mailako erakundeen profil desberdinak eta haien programak deskribatzeko.

• ***Finantzaketa***

22. Goi-mailako hezkuntzako erakundeek autonomia handiagoa lortu dute, eta, aldi berean, eskatzen zaie gizartearen premiei eta erantzukizun publikoaren obligazioei erantzuteko gaitasun handiagoa izan dezatela. Erantzukizun publikoko esparruaren barnean, egiaztatu dugu finantzaketa publikoak lehentasun nagusia izaten jarraitzen duela goi-mailako hezkuntzako erakunde autonomoen sarbide ekitatiboa eta garapen jasangarria bermatzeko.



Komenigarria da arreta handiagoa jartzea finantzaketa-iturri eta finantzaketa-bitarteko berriak eta dibertsifikatuak bilatzeari.

III. Antolamendu-egitura eta jarraipena egitea

23. Gure ustez, Boloniako prozesuaren egungo antolamendu-egitura da egokiena. Egitura horren berezitasun nagusia da gobernuak, komunitate akademikoak (komunitate hori ordezkatzeko duten erakundeekin) eta beste alderdi interesdun batzuek elkarrekin lankidetzan jarduten dutela. Etorkizunean, Boloniako prozesuaren buru EBren Presidentzia izango duen herrialdea eta erkidegotik kanpoko herrialde bat izango dira.

24. Beste eremu estrategiko batzuekin elkarrekintzan aritzeko, Boloniako Jarraipen Taldea (BFUG) harremanetan jarriko da beste esparru batzuetan (ikerketak, immigrazioa, gizarte-segurtasuna eta enplegua, adibidez) politikak egiteko ardura duten pertsonekin eta adituekin.

25. Boloniako Jarraipen Taldeari agintzen diogu 2012ra bitarteko lanerako plan bat presta dezala komunikatu honetan identifikatutako lehentasunetan aurrera egiteko eta ministro-konferentzia honetara aurkeztutako txostenen gomendioei dagokienez, ahalbidetu dezala Boloniako Prozesuarekiko independentea den ebaluazioaren emaitzak etorkizunean txertatzea.

Bereziki, honako zeregin hauek agintzen dizkiogu Boloniako Jarraipen Taldeari (BFUG):

- Mugikortasuna eta dimentsio soziala neurtzeko eta gainbegiratzeko erabilitako adierazleak definitzea datu-bilketari dagokienez;
- Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan mugikortasun orekatua lortzeko moduari buruzko gogoeta egitea;
- Gardentasun-mekanismoen garapena kontrolatzea eta 2012ko ministro-konferentziari jakinaraztea;
- Dauden egiturak ahalik eta hobekien erabiliz, sare bat eratzea Boloniako prozesuari buruz hobeto informatzeko eta prozesua hobeto sustatzeko Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrutik kanpo;
- Onespeneraren alorreko ekintza-plan nazionalak aztertzeke gomendioen jarraipena egitea.

26. Boloniako prozesuaren aplikazioan izandako aurrerapenei buruzko txostenak modu koordinatuan aurkeztuko dira.

- Datu objektiboetan oinarritutako metodologia hobetu egin beharko da balantzean.



HEZKUNTZA MINISTERIOA

- Eurostati eta Eurostudenti eskatuko zaie, Eurydicerekin lankidetzan arituta, lagundu dezatela berariazko datuak bilduz.
- Txostenak aurkezteko lana Boloniako Jarraipen Taldeak gainbegiratuko du eta 2012ko ministro-konferentziatik lortutako datuak bilduko dituen txosten global bat egingo da.

27. E4 taldeari (ENQA-EUA-EURASHE-ESU) eskatzen diogu bere lankidetzarekin jarrai dezala kalitatea bermatzeko Europako dimentsioa garatzen, eta, bereziki, berma dezala Kalitatea Bermatzeko Europako Erregistroa kanpoan ebaluatuko dela, interesdunen iritziak kontuan hartuta.

28. Boloniako urteurrenaren konferentzian elkartuko gara berriro. Konferentzia hori elkarrekin antolatuko dute Austriak eta Hungariak Budapesten eta Vienan, 2010eko martxoaren 11n eta 12an. Hurrengo ministro-konferentzia Errumaniak antolatuko du Bukaresten 2012ko apirilaren 27an eta 28an. Hurrengo ministro-konferentziak 2015ean, 2018an eta 2020an egingo dira.

Gaztelaniarako itzulpena Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioaren Hizkuntzen Interpretazio Bulegoak egin du